

BIZITZAREN MARGOAK

Elene Etxaniz Uribe

Ondarroa

*Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña.
Amonatxo bat nun: gaur, enarak
etorri-garaiez, aldegiña.*

XABIER LIZARDI

Txiki-txikitatik ibili naiz balletean, dantza nire bizitzako grina baita. Amama Natirekin joaten naiz dantza-entseguetara eta berak laguntzen dit elastikoa eta zapatilak janzten. Dantzari arropekin ikusten nauen bakoitzean gauza bera esaten dit, aldiro: “gure ama ematen duzu. Herriko emakume eder eta lirainenetakoa izan zen ama Dolos”.

– Beti gauza bera diostazu amama– esaten diot nik– Nor zen ba birramona? Kontatu egizkidazu, faborez, zuen amaren kontuak.

– Dolores Bengoetxea Zubikarai zen zure birramona. Ondarroarra izatez, eta bertan bizi izan zen bizi osoan. Garai haietan gure familiak baxurako txalupa bat zuen.

- Baxurakoa?
- Bai, berdela, antxoa eta hegaluzea arrantzatzen zituzten gehienbat. Familia guztiak egiten zuen lan itsasoaren inguruan.
- Zenbat neba-arreba ziren etxean?
- Hamar senide ziren etxean eta bera zen nagusia.
- Hamar senide? Gu bakarrik bi gara-eta.
- Halaxe da. Izan ere, sasoi hartan familiak ugarigoak ziren eta gainera, den-denak etxeko negozioan egin behar izaten zuten lan. Bere kasuan, neba-arrebetatik nagusiena zenez, beragan laga zituen aititik lan-ardurak.
- Orduan, amama ere itsasora joaten zen? Emakumea izanda?
- Itsasora ez zen joaten baina izugarri laguntzen zion bere aitari, oso arduratsua baitzen. Lehorrean egiten zuen lan, galtza bete lan. Aitaren txalupa berarentzat oso garrantzitsua zenez, emakumea izan arren, bere eguneroko lana gizonen adinakoa izaten zen.
- Zer egiten zuen ba? Zein zen bere zeregina?
- Goizalban kaira joan eta arraina atera behar zuen txalupatik, kofradiara eramane saltzera, txalupa garbitu... Sekula ere ez zen gogaitzen. Langile nekaezina zen.
- Ni ere balletean nekatzen naiz tarteka baita, baina ez naiz kexatzen.
- Ai. Birramonaren garra duzu zeuk ere. Baina langile fina izateaz gain, emakume ederra eta dotorea zen, zu bezala.
- Benetan?

– Bene-benetan. Pentsa, behin, etxeko balkoian zeudela ahizpa eta bera, etxeko txalupa noiz porturatuko zain, kaletik zebilen gizon bat beraiei begira gelditu zen. Eskuekin keinu egiten zien, berarengana joateko eskatuz. Hasieran, ahizpagatik zebilela pentsatu zuen birramonak, baina berriz seinالاتu zuenean konturatu zen beragatik ari zela.

Halaxe, jaitsi zen kalera eta ohartu zen gizon hura margolari bat zela.

– Margolari bat? Nor?

– Zubiaurre. Garaiko margolaririk entzutetsuena. Zubiaurrek birramonari esan zion margotu egin nahi zuela, erretratu bat egin nahi ziola. Izan ere, emakume arrantzaleei buruzko serie bat egiten ari zen. Gure amak atentzioa deitu bide zion. Bere begi urdinek maitemindu zuten. Arrantzale soinekoz jantzita eder ederra zegoen. Hamabost urte izango zituen orduan zure birramonak.

Zubiaurre margolaria gor-mutua zen eta horregatik keinuen bidez komunikatu zen beraiekin. Madrilen bizi zen eta Ondarroara etortzen zen udaro oporrak igarotzera. Birramona egunero joaten zen berarengana margoa bukatu arte, eta joan bakoitzean bost pezeta ematen zizkion Zubiaurrek.

– Bost pezeta? Askok da hori?

– Garai hartan makina bat diru!

Une bereziak bizi izan zituen birramonak modelo lanak egiten, eta esaten zuen gizon jatorra zela Zubiaurre. Uda hartan bertan amaitu zuen mihi-sea, eta hurrengo urtean berriz etorri zenean Ondarroara Zubiaurre birramonarengana hurbil-

du zen esaten pozarren zegoela, berari egindako margoa Madrileko Prado museoan zegoela-eta. Birramona harro harro gelditu zen jakin zuenean berari egindako koadroa noraino ailegatu zen.

Hala ere, sekula ere ez zuen pentsatuko itsasoaren beste aldera ere helduko zela koadroa, Ameriketara hain zuzen.

– Ameriketara? Bai zera amama. Zuk bai irudimena.

Tira, joan behar dut balleteko gela barrura.

Geroztik, urteak eta urteak igaro ziren baina, hala eta guztiz ere, balleta egiteari ez nion inoiz utzi. Gaztaroan, beka bat ere lortu nuen New Yorken dantza ikasteko. Amama Nati eta etxeakoak utzi eta ozeanoa zeharkatu nuen.

Nire bizitzako garai politenetakoa izan zen hura. Jende ugari ezagutu nuen eta bizipen anitz izan nituen bertan.

Baina bizipen guztietatik honako honek hunkitu ninduen bereziki.

Atsedean egun batean, ikaskide batek galdetu zidan Metropolitan Museumer a joan nahi nuen berarekin batera. Ikusgarria izan zen bisita: han zeuden, Picasso, Velazquez, Leonardo da Vinci eta beste zenbaiten lanak. Denak maisulanak. Koadro batek, baina, erabat liluratuta utzi ninduen. Erakargarria zen oso. Hurreratu eta margoko aurpegia ezaguna egin zitzaidan.

Arrantzalez jantzitako emakume gazte bat zen koadrokoa. Gehiago hurbildu eta bere begi urdinez txundituta geratu nintzen. Ezin zen izan, ezin nuen sinetsi. Urduri, koadro azpian zegoen sinadura begiratu nuen. Zubiaurrerena zela ohartu nintzen.

Amama Nati zuzen zebilen, eta ni guztiz oker. Zubiaurrek birramonaren koadroa margotu zuen benetan. Egia zen amamaren ipuina. Dolosek nik baino askoz lehenago zeharkatu zuen itsasoa. Eta mihise baten barruan hantxe zegoen, New York erdian.

Koadroari begira-begira geratu nintzen luzarotan. Egia da, pentsatu nuen nire bostean irribarre batekin, badugu elkarren antza birramona Dolosek eta biok.

Horretan ere arrazoia zuen amama Natik.

Oraintxe bertan deitu behar diot!